


**Durangoko Udaleko Hezkuntza-kontseiluaren
Erregelamendua**

DURANGO
2026ko uztailaren 24a

**Hasierako onarpena eman zitzaion 2026ko uztailaren 22ko
Osoko Bilkuran.**



DURANGOKO UDALEKO HEZKUNTZA-KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA

ZIOEN AZALPENA


Hezkuntza funtsezko zutabea da garapen pertsonalerako, gizarte-kohesiorako eta herritartasun kritiko, inklusibo eta konprometitu baten eraikuntzarako. Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua hezkuntzarako eskubidea aitortzen du, eta botere publikoei eskubide hori bermatzeko ardura esleitzen die. Autonomia-erkidegoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legeak hezkuntza-sistema bat eratzen dute, berdintasunaren, inklusioaren, bikaintasunaren, gizarte-kohesioaren eta partaidetza komunitarioaren printzipioetan oinarritua, eta berariaz aitortzen dute udalerrien eginkizuna hezkuntza-gobernantzan.

17/2023 Legeak hezkuntzaren ikuspegi zabala txertatzen du, hezkuntza ez baita soilik eskola-eremuan garatzen den prozesu bat, baizik eta eskolaren, familien, erakundeen eta komunitatearen arteko erantzukizun partekatua. Eskola, familia eta ingurune soziala hezkuntza-prozesuan eragile aktiboak direla kontuan hartuta, hezkuntza ez da ikastetxeen esparrura mugatzen, baizik eta komunitate osoan garatzen den erantzukizun partekatua da. Horrela, komunitate osoak ikasten du eta komunitate osoak irakasten du, hezkuntza prestakuntza-prozesu iraunkorra dela aitortuz, pertsonak aberasten dituen bai maila pertsonalean bai sozialean, eta hezkuntza-eragile aktibo bihurtzen dituen.

Testuinguru horretan, Durango horrela ulertzen da: hezkuntza-esparrua modu formalean (hezkuntza arautua), ez-formalean (hezkuntza-asmoa duten jarduerak, eskola-sistematik kanpo) eta informalean (hezkuntza-eragina duten eguneroko egoerak, nahiz eta asmo espliziturik ez izan) garatzen duen lurralde gisa.

Durangok badu ibilbide esanguratsua hezkuntza-partaidetzan, Udal Eskola Kontseilua eta Hezkuntza Foroa bezalako esperientzien bidez gauzatua. Esperientzia horiek ikastetxeen, familien, gizarte-, kultura- eta kirol-erakundeen eta ordezkari instituzionalen arteko topaketa eta lankidetzaren guneak sortu dituzte. Prozesu horiek agerian utzi dute hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko lankidetzaren balioa, dinamizazio teknikoaren garrantzia eta partaidetzarako egitura egonkorrago, inklusiboago eta eraginkorragoetara aurrera egiteko beharra.

Ebaluazio eta hausnarketa kolektiboko prozesuek hainbat erronka azaleratu dituzte, hala nola orain arte egin den lanaren eta hemendik aurrera egingo denaren komunikazioa eta herritarren ekarpenak txertatzeko mekanismoak indartzea, profil eta ahots berriak txertatzea —bereziki haur eta nerabeenak—, aniztasuna eta inklusioa bermatzea, eta hezkuntza-partaidetzaren jarraikortasuna eta eragina sendotzea. Horrek guztiak indartu egiten du aurreko esperientziak integratu eta gaindituko dituen Udaleko



Hezkuntza-kontseilu baterantz aurrera egiteko egokitasuna, partekatutako espazio instituzional gisa sendotuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legeak haur eta nerabeak eskubide osoko subjektu gisa aitortzen ditu, eta bermatzen du haiei eragiten dieten gaitan entzunak izateko eta parte hartzeko duten eskubidea. Printzipio horrek gidatzen du Kontseiluaren konfigurazioa, non hurrek, nerabeek, familiek eta hezkuntza- eta komunitate-eragileek zeregin aktibo eta esanguratsua izango duten. Haur eta nerabeen presentzia sustatzeaz haratago, Kontseiluak koordinazio mekanismo egokiak txertatuko ditu haien parte-hartzea benetakoa eta eraginkorra izan dadin.


Tokiko esparruan, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak udalerriei esleitzen dizkie herritarren partaidetza, gizarte-kohesioa eta garapen komunitarioa sustatzeko eskumenak, eta parte-hartzerako organo sektorialak sortzea legitimatzen dute, hurbileko eta erantzukizun partekatuko gobernantzarako tresna gisa. Halaber, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipioak Kontseiluaren osaera gidatzen du, berdintasunaren eta justizia sozialaren isla gisa.

Hezkuntza-alorrean orain arte abian izan diren guneek euskararen arnagune izateko bokazioa dute, eta bokazio horri jarraitasuna emango zaio.

Testuinguru horretan, Durangoko Udaleko Hezkuntza-kontseilua organo kolegiatu, aholkulari, parte-hartzaile eta koordinazioko gisa ulertzen da, tokiko hezkuntza-ekosistema artikulatzeko helburuz. Hona hemen haren xede nagusiak:

- Hezkuntza komunitate-proiektu gisa ulertzeko ikuspegi partekatua sustatzea.
- Hezkuntza-proiektu komunitarioak bultzatzea.
- Hezkuntza-arloko erronkak eta lehentasunak identifikatzea.
- Udalari eta eskumena duten gainerako erakundeei proposamenak eta gomendioak helaraztea.
- Herri Hezitzaileen eta Haurren Hirien printzipioak garatzea.
- Hezkuntzarako, parte-hartzerako, inklusiorako eta ongizaterako eskubideak sustatzen eta bermatzen laguntzea.

Kontseiluak espazio bizi eta dinamiko bihurtzea du helburu, elkarriketan, lankidetzan eta erantzukizun partekatuan oinarritua, Durangoko errealitate sozial, kultural eta linguistikoarekin loturiko hezkuntza integrala sustatuko duena, haur, nerabe eta herritar guztien ongizatea eta garapena ardatz hartuta.



I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. ERAKETA

Durangoko Udaleko Hezkuntza-kontseilua eratu da, toki-eremuan hezkuntza-arloan lankidetzan aritzeko, parte hartzeko eta kontsultak egiteko espazio instituzional gisa, lehen aipatutako arauetan xedatutakoaren babesean.

Udaleko Hezkuntza-kontseiluak ekimen berritzaileak bultzatuko ditu hezkuntza proiektu komunitarioak sortzera bideratzeko, ikasleak hartzaile dituzten eragile desberdinak koordinatuz —eragile sozial, ekonomiko; kirol-, kultura-, osasun-eragileak; eta hirugarren sektorekoak—, hezkuntza formal eta ez formalen arteko armonia sustatzeko.

2. artikulua. HELBURUAK

1. Hezkuntza-proiektu komunitarioak eratu eta bultzatzea, baliabide publikoen erabileran sinergiak sortuz eta herritarren ongizatea eta garapena sustatuz.

2. Hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatzea eta hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko koordinazioa bultzatzea, hirugarren sektoreko, gazte-arloko, kultura- eta kirol-arloko erakundeak barne.

3. Nortasunaren garapen osoari bideratutako hezkuntzarako eskubidea bermatzea, eskola- eta komunitate-eremuan.


4. Hezkuntza arloan eta Durangoko komunitatean euskararen erabilera sustatu, indarberritu eta normalizatzeko estrategiak oinarri hartzea eta bultzatzea.

5. Gizarte- eta banakako desberdintasunak ekiditen saiatzea eta ikasle guztien inklusioa sustatzea, herrira iritsi berrientzako ikasleen harrera- eta jarraipen-prozesu pertsonalizatuak barne.

6. Hezkuntza-premien estaldura bermatzea, eskola-plazen eskaintza egoki baten bidez.

3. artikulua. IZAERA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. Udaleko Hezkuntza-kontseilua kide anitzeko organoa da, aholku-emailea eta gizarte-partaidetzakoa, erabakitzeko eskumen loteslerik gabea, baina hezkuntza-proiektu komunitarioak eratze eta bultzatzeko gaitasuna duena, bai eta Udalari eta, hala



badagokio, beste hezkuntza-erakunde eskudun batzuei proposamenak, gomendioak eta txostenak helarazteko ere.

2. Kontseiluaren jardun-eremua Durangoko udalerria da, eta bertako ikastetxe guztiak hartzen ditu, bai eta udalerrian hezkuntzarekin eta gizarte eta hezkuntza-ekintzarekin lotutako erakunde eta gizarte-eragileak ere.

3. Haren erabakiak eta irizpenak ez dira lotesleak izango, hargatik eragotzi gabe Udalak aintzat hartzea eta hezkuntzan parte hartzeko udalaz gaindiko beste organo batzuei igortzea.

4. Udaleko Hezkuntza-kontseilua erregelamendu honek eta aplikatu beharreko gainerako xedapenek arautuko dute.

5. Udaleko Hezkuntza-kontseiluak autonomia funtzionala izango du udalbatzarekiko.

II. TITULUA

EGITURA ETA OSAERA

4. artikulua. EGITURA

1. Udaleko Hezkuntza-kontseilua honako hauek osatuko dute: lehendakariak, lehendakariordeak, kontseilariak eta idazkariak.


2. Udaleko Hezkuntza-kontseilua Osoko Bilkuran egituratzen da eta, hala badagokio, lantalde espezifikoak eratu ahal izango ditu.

3. Udaleko Hezkuntza-kontseiluak sexuaren arabera ordezkaritza orekatua izango du bere egitura guztietan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikulua eskatzen duenaren arabera.

5. artikulua. UDALEKO HEZKUNTZA-KONTSEILUAREN OSAERA

1. Udaleko Hezkuntza-kontseiluko lehendakaria alkatea izango da, edo zeregin hori eskuordetzen dion zinegotzia. Eskuordetza hori edozein unetan ezeztatu daiteke.

2. Lehendakariordetza Kontseiluko lehendakariak izendatuko du, kontseiluko kideen artean.



3. Udaleko Hezkuntza-kontseilua osatuko duten kontseilariak honako hauek izango dira:

- a) Durangoko ikastetxeetako guraso elkartearen ordezkari bana.
- b) Udalerriko ikastetxeetako zuzendaritzen ordezkari bana.
- c) Gehienez 10 ordezkari komunitario (aisialdi eta denbora libreko taldeak, kultura-arlokoak, kirol-arlokoak, auzo-elkarteak...).
- d) Udal-korporazioan ordezkaritza duten udal talde politiko bakoitzeko ordezkari bana.
- e) Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoa hurren 2 ordezkari.
- f) 14 eta 18 urte bitarteko udalerriko ikasleen 2 ordezkari.
- g) Udalerriko hezkuntza-arloko bestelako erakundearen ordezkariak, bereziki Oinarritzako Lanbide Heziketako Udal Institutu, Durangoko Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxe (HHI), Bartolome Ertzila Musika Eskola, Astarloa Kulturgintza eta Udal Euskaltegiak ordezkariak, beren izaera hezitzaileagatik eta udalerriko hezkuntza-sisteman duten funtsezko eginkizunagatik.
- h) Gehienez banakako bi kontseilari, hezkuntzaren eta integrazioaren aldeko jardueretan ibilbide egiaztatua eta parte hartzeko interes egonkorra dutenak.
- i) Udaleko Hezkuntza-kontseiluaren Osoko Bilkurako saioetara eta, hala badagokio, lan-batzordeetara, modu puntualean, hitzarekin baina botorik gabe, gonbidatu ahal izango dira beren gaitasun teknikoagatik agindutako zereginak hobeto garatzeko beharrezko txostenak aurkez ditzaketen pertsonak. Horien artean egon daitezke, besteak beste, kirolaren, gazteriaren, kulturaren, immigrazioaren, kooperazioaren, liburutegien edo museoaren arloetako udal-teknikariak edo kanpoko adituak, bai eta Kontseiluari ekarpen berezia egin diezaizketen bestelako pertsonak ere.


4. Inola ere ez dira kontseilari gisa onartuko sexu-bereizkeriagatik administrazio-zehapena edo zigor penala jaso dutenak, zehapen edo kondena horiek indarrean dauden bitartean. Kanpoan geratuko dira, halaber, hirugarren sektoreko elkarte, erakunde edo entitateak, baldin eta sexuagatik diskriminazioa eragiten badute edo emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo zailtzen dituzten jarduerak antolatzen badituzte.

5. Ordezko kontseilariak ez dute Kontseiluaren organoetan parte hartuko titularrak bere postuan dagoen bitartean.

6. Udaleko Hezkuntza-kontseiluko Idazkaritza Kontseiluko lehendakariak erabakitzen duen Udaleko teknikariarena izango da. Hitza izango du, baina botorik ez.

6. artikulua. KONTSEILARIAK IZENDATZEA

1. Udaleko talde politikoetako kontseilariak udalbatzak izendatuko ditu, talde horietako bakoitzak proposatuta, agintaldi bakoitzaren hasieran.



2. Ikastetxeetako zuzendaritzetatik datozen kontseilariak eta horien ordezkioak alkateak izendatuko ditu, udalerriko ikastetxe bakoitzak proposatuta, agintaldi bakoitzaren hasieran.

3. Gurasoen elkarrekin datozen kontseilariak eta horien ordezkioak alkateak izendatuko ditu, ikastetxe bakoitzeko ikasleen gurasoen elkarrekin bakoitzak proposatuta agintaldi bakoitzaren hasieran.

4. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetak bi kontseilariak alkateak izendatuko ditu ikasturte bakoitzaren hasieran. Horretarako, Lehen Hezkuntza eskaintzen duten Durangoko ikastetxe guztiek 5. eta 6. mailetak bi ikasle proposatuko dituzte.

Kontseiluko ikasleen ordezkariak hautatzeko prozedura honakoa izango da:

- Ikastetxeek proposatutako ikasleen artean, borondatez aurkezten diren ikasleak badaude, haien artean egingo da zozketa.
- Boluntariorik ez badago, ikastetxeek proposatutako ikasle guztien artean egingo da zozketa.

Hautatutako bi ikasleek Kontseiluko kontseilari gisa jardungo dute. Proposatutako gainerako ikasleek, berriz, Haurren Kontseilua lantaldea osatuko dute, Kontseiluarekin lotutako lan eta parte-hartze gune gisa.

5. 14 eta 18 urte bitarteko kontseilariak alkateak izendatuko ditu ikasturte bakoitzaren hasieran. Horretarako, adin-tarte horretan eskolak ematen dituzten Durangoko ikastetxe guztiek maila horietako bi ikasle proposatuko dituzte.


Kontseiluko ikasleen ordezkariak hautatzeko prozedura honakoa izango da:

- Ikastetxeek proposatutako ikasleen artean, borondatez aurkezten diren ikasleak badaude, haien artean egingo da zozketa.
- Boluntariorik ez badago, ikastetxeek proposatutako ikasle guztien artean egingo da zozketa.

Hautatutako bi ikasleek Kontseiluko kontseilari gisa jardungo dute. Proposatutako gainerako ikasleek, berriz, Gazte Foroa lantaldea osatuko dute, Kontseiluarekin lotutako lan eta parte-hartze gune gisa.

Gazte Foroa lantaldea, Kontseiluarekin lotutako lan eta parte-hartze gunea izango da, eta bertan integrazio, aniztasun eta parekidetasun irizpideak bermatuko dira.

6. Hezkuntza-ikuspegia duen eta udalerriko hezkuntzarekin eta integrazioarekin lotura duen hirugarren sektoreko edozein elkarrekin, entitate edo erakunderen ordezkariak alkateak izendatuko ditu, Kontseiluan parte hartzeko eskaera arrazoitua egin ondoren. Udalerriko elkarrekin eta erakunde guztiek parte hartzeko aukera izan dezatela defendatzen da. Horretarako, elkarrekin guztiei parte hartzeko gonbitea luzatuko zaie eta parte hartzeko borondatea adierazi dutenen artean aurreikusitako kopurua baino pertsona gehiago badaude, zozketa edo beste mekanismo publiko baten bitartez hautatuko dira, beti ere sektoreen arteko oreka mantenduz (kultura, kirola, aisialdia, auzo-arlokoa ...). Bi urterik behin, ordezkariak aldatu egingo dira.



7. Banaka eta irabazi-asmorik gabe hezkuntzaren eta integrazioaren aldeko jarduerak egiten dituzten, ibilbide egiaztatua duten eta Kontseiluan parte hartzeko interes egonkorra dutela adierazten duten pertsonak alkateak izendatuko ditu. Talde horretako Kontseilarien kopurua ezin izango da 2 baino handiagoa izan. Kontseiluan parte hartzeko banakako partaidetza-eskaera gehiago egonez gero, Kontseiluaren Osoko Bilkurari dagokio horiek hautatzea, merezimendu eta gaitasun-printzipioen arabera. Parte hartzeko eskaera alkateari zuzendu beharko zaio, eta hark atzera bota ahal izango du, baldin eta pertsonak hezkuntzarekin lotutako merezimendu nahikorik egiaztatzen ez badu edo 5.4 artikuluan adierazitako arrazoiren bat gertatzen bada, Kontseiluaren Osoko Bilkurari jakinarazi ondoren, edo banakako kontseilarien kupoa beteta badago. Alkateak gonbitea egin ahal izango die hezkuntzaren arloan gaitasun aitortua duten eta gaur egun udalerriarekin lotura duten pertsonen Kontseiluko kide izan daitezen, baldin eta banakako kontseilariari esleitutako kupoa postu hutsak baleude.

7. Artikulua: KONTSEILUAN PARTE HARTZEA

1. Durangoko Hezkuntza Kontseiluan parte hartu nahi duten elkarte, erakunde eta pertsona fisikoek Kontseiluko lehendakariari bidaliko diote eskabidea. Horrekin batera, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten beharrezko agiriak bidaliko dituzte, baldin eta agiri horiek Udaleko artxiboetan ez badaude.

Kontseiluko partaide izateko eskariak Kontseiluak berak onartuko ditu, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.


2. Elkarte edo erakundeek agiri hauek bidali beharko dituzte eskabidearekin batera:

- a) Elkarte edo erakundearen estatutuak edota gobernu organoen erabakiak, hezkuntzaren arloko atal edo sailei funtzionatzeko autonomia onartzen dietenak. Estatutu horiekin batera erregistro ofizial eskuduneko sarreraz-enbakiaren ziurtagiria edo frogagiria aurkeztu beharko da, eta bereziki adierazi beharko da erregistro horretan izena eman zen eguna.
- b) Helbide sozialaren egiaztagiria, elkarte-kide kopurua eta zuzendaritza karguetan dauden pertsonen izena eta kargua.
- c) Durangoko Hezkuntza Kontseiluan arituko den ordezkaria eta horren ordezkoa izendatzeko erabakiaren ziurtagiria.

3. Norbere buruaren izenean parte hartu nahi duten pertsona fisikoek ondorengo datuak aurkeztu behar dituzte:

- a) Izena eta bi deitura.
- b) Kontseiluan parte hartzeko arrazoiak azaltzea.
- c) Gaiaren interesa dutela eta irabazi asmorik ez dutela adieraztea.
- d) Deialdiak jaso ahal izateko helbidea eta harremanetarako telefonoa.

4. Datu horietan aldaketaren bat gertatzen bada, Kontseiluaren Idazkaritzara jakinarazi beharko da, aldaketak jazo eta hilabete baten barruan.



5. Federazioren batek Kontseiluan parte hartzen badu, federazio horretako kideak ezingo dira kontseiluko partaide izan euren aldetik.

6. Kontseiluan parte hartzeak honakoak dakartza: araudia onartzea, Kontseiluaren edukiei buruzko informazioa jasotzea eta zabalkundea egitea dagokion elkarte edo erakundearentzat, eta batzarretan hartutako konpromisoak betetzea.


7. Kontseiluan parte hartzeagatik ez da inolako ordainsaririk jasoko.

8. artikulua. KONTSEILARIAK BERRITZEA

Udaleko Hezkuntza-kontseiluko kontseilariak, ikasleen ordezkariak eta hirugarren sektoreko edozein elkarte, entitate edo erakunderen ordezkariak izan ezik, lau urtean behin berrituko dira, udal-hauteskondeekin batera, gehienez ere lau hilabeteko epean, toki-korporazio berria eratzen denetik zenbatzen hasita. Agintaldian zehar postu huts bat sortuko balitz, ordezkaturako kolektiboak aldezturik ezarritako ordezkari deituko dio hura betetzeko, agintaldia amaitzeko edo kargua utzi arte geratzen den denborarako. Ordezkaturako kolektiboa aske izango da edozein unetan kontseilari gisa aukeratutako pertsonaren ordezkaria erabakitzeko, egoki baderitzo, Kontseiluko lehendakariari jakinarazi ondoren. Hirugarren sektoreko edozein elkarte, erakunde edo entitateen ordezkariak bi urtean behin berrituko dira, eta ikasleen ordezkariak urtero berrituko dira.

9. artikulua. KONTSEILARIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. Udaleko Hezkuntza-kontseiluko kontseilariak honako eskubide hauek dituzte:
 - a) Osoko Bilkurako edo Kontseiluko beste organo batzuetako eztabaidetan aktiboki parte hartzea.
 - b) Osoko bilkuretako gai-zerrendatik kanpo aztertu beharreko gaiak proposatzea. Gai horiek kontuan hartu beharko dira, kontseilarien herenak baino gehiagok aurka egiten ez badu.
 - c) Hezkuntza-eremuarekin edo harekin lotutako gaiei buruz proposamenak planteatzea.
 - d) Kontseiluak hartutako neurriak eta erabakiak betearazteko garatzen diren ekintzei buruzko informazio guztia jasotzea eta eskatzea.
 - e) Akten eta Kontseiluaren dokumentazio guztiaren berri izatea.
 - f) Erregelamendu honek edo indarrean dagoen araudiak aitortzen dien beste edozein eskubide erabiltzea.
2. Udaleko Hezkuntza-kontseiluko kontseilariak betebeharrak hauek izango dituzte:
 - a) Kontseiluaren eta, hala badagokio, batzorde iraunkorraren eta lan taldeen bileretan parte hartzea.
 - b) Kontseiluak hartutako erabakiak gauzatzeko sustatutako ekintzetan laguntzea.
 - c) Erregelamendu honetan xedatutakoa errespetatzea eta betetzea.



- d) Kontseiluko kideak ahalik eta lasterren jakinaraziko dute Kontseiluan parte hartzeari eragin diezaiokeen edozein gorabehera.
- e) Hezkuntza-ikuspegia eta herriko hezkuntzarekin lotutako hirugarren sektoreko edozein elkarte, erakunde edo antolamenduren kasuan, ahalik eta lasterren jakinaraziko dituzte estatutuetan egindako aldaketak, baldin eta Kontseiluan parte hartzean eragina izan badezakete, parte-hartzearen egokitasuna baloratu ahal izateko.
- f) Araudi honetatik edo indarrean dagoen legeriatik eratortzen den beste edozein betebeharrak betetzea.

10. artikulua. KONTSEILARI IZAERA GALTZEA

1. Udaleko Hezkuntza-kontseilua osatzen duten kideek kontseilari izateari utziko diote honako arrazoi hauengatik:


- a) Agintaldiaren amaiera.
- b) Berariaz uko egitea.
- c) Ordezkapena.
- d) Ordezkaritza duen kolektiboko kide izateari uzten diotenean.
- e) Ordezkatzen duten erakundea juridikoki desagertzea.
- f) Elkartearen estatutuen funtsezko aldaketa, izendapena eragin zuena.
- g) Izendapena eragin zuen beste edozein baldintza betetzeari uzten zaionean.
- h) Kargu publikoetarako inhabilitazioa.
- i) Justifikatu gabeko etengabeko absentzia.
- j) Ezintasun iraunkorra edo heriotza.

2. Kasu guztietan, a) puntuak izan ezik, Kontseiluko Idazkaritzak postu hutsa betetzeko ordezkatzen duen taldeari jakinaraziko dio ordezko kontseilaria sar dadin. Gerora sortutako postu hutsa betetzen duenaren agintaldiak ordezkapena eragin duenaren agintaldia amaitu arte iraungo du.

3. Justifikaziorik gabe, jarraikortasunez edo modu errepikatuan bileretara bertaratzen ez bada, kontseilaria kargutik kentzeko aukera izango da. Kasu horretan, kide den organoaren ordezkaritza beteko duen beste pertsona bat izendatu beharko da, salbu eta banakako kontseilaria bada; azken kasu horretan, haren hutsunea banakako partaidetza-eskaera berria dagoenean bakarrik beteko da. Kargugabetzea Osoko Bilkurak erabakiko du, lehendakariak proposatuta eta dagokion pertsonari entzun ondoren.

4. Hirugarren sektoreko elkarte, erakunde edo entitate baten estatutuetan egindako aldaketek bere ordezkaria kontseilarien artetik kentzea eskatzen duten baloratzea Lehendakariak dagokio lehenik eta behin, eta lehendakariak Osoko Bilkurari helaraziko dio bere iritzia, kontuan har dezan eta horri buruzko azken erabakia har dezan.

5. Kontseilarien eta horien ordezkoen izendapena eta kargu-uztea publikoak izango dira.



III. TITULUA

UDALEKO HEZKUNTZA-KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

11. artikulua. LEHENDAKARITZA

1. Udaleko Hezkuntza-kontseiluko lehendakariak zuzendaritza-, kudeaketa- eta ordezkaritza-lanak egingo ditu.

2. Lehendakaritzaren eginkizun zehatzak honako hauek dira:


- a) Kontseiluaren ordezkaritza izatea.
- b) Ohiko eta ezohiko bilkuren deialdia erabakitzea eta gai-zerrenda finkatzea, gainerako kideen eskaerak kontuan hartuta, betiere behar adinako aurrerapenez egin badira.
- c) Bilkurak zuzentzea, eztabaiden garapena moderatzea eta arrazoi justifikatuengatik etetea.
- d) Berdinketak ebaztea bere botoaren bidez, erabakiak hartzeko ondorioetarako.
- e) Legeen betearazpena bermatzea.
- f) Kontseiluaren erabakien aktak eta ziurtagiriak ontzat ematea.
- g) Hezkuntza Saileko Burutzaren proposamenez, Kontseiluaren Idazkaritzaz arduratuko den pertsona izendatzea.
- h) Kontseiluaren bilkuretara, modu egonkorrean, organo honi ekarpen berezia egin diezaioketen pertsonak gonbidatzea.
- i) Kontseiluaren bilkuretara, noizbehinka, beren gaitasun teknikoagatik Kontseiluaren zereginak hobeto garatzeko beharrezko txostenak aurkez ditzaketen pertsonak gonbidatzea.
- j) Kontseiluko kideei, baita modu egonkorrean gonbidatutako pertsonei ere, lantalde ezberdinen jardueren eta lanen berri aldian-aldian ematea.
- k) Kontseiluaren Osoko Bilkurak eta Batzorde Iraunkorrak hartutako erabakien betearazpena zaintzea.
- l) Lehendakari izateari berez dagozkion gainerako eginkizunak betetzea.

12. artikulua. LEHENDAKARIODETZA

Lehendakariordeak Lehendakaritza ordezkatzeko du kargua hutsik dagoenean, kanpoan denean, gaixorik dagoenean edo legezko beste arrazoiren bat dagoenean, eta eskuordetutako eginkizunak bere gain hartu ahal izango ditu. Kontseiluaren Osoko Bilkurari eta Batzorde Iraunkorrari emango zaio eginkizun horien berri.

13. artikulua. IDAZKARITZA

Idazkaritza hezkuntza-arloko teknikariari edo Udaleko Hezkuntza Sailak izendatutako pertsonari dagokio. Eskuordetze horrek Lehendakaritzaren adostasuna beharko du.



Oro har, Idazkaritzaren eginkizunak Kontseiluari laguntza tekniko eta administratiboa ematen dion organo bati dagozkionak izango dira. Idazkaritzari honako eginkizun hauek dagozkie:

- a) Kontseiluaren Osoko Bilkurara eta Batzorde Iraunkorrera joatea, hitzarekin baina botorik gabe.
- b) Kontseiluaren organoen bilkuren deialdiak egitea, Kontseiluaren Lehendakartzaren aginduz, bai eta kideei eta gonbidatutako pertsonen dagokien deialdiak bidaltzea ere.
- c) Kontseiluak eztabaidatu ahal izateko gaiak, txostenak, proposamenak eta irizpideak prestatzea.
- d) Kontseiluko kideen eta gonbidatutako pertsonen komunikazio-ekintzak jasotzea, hala nola jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo jakin beharreko beste edozein idazki.
- e) Kontseilu-kideen izendapenari eta, hala badagokio, ordezkapenari buruzko dokumentazioa izapidetzea, baita modu egonkorrean gonbidatutako pertsonena ere.
- f) Gaiak izapidetzea, bilkuren aktak idatzi eta baimentzea.
- g) Onartutako kontsulta, irizpen eta erabakien ziurtagiriak ematea.
- h) Kontseiluaren dinamizazioan eginkizun funtsezkoa izango du, organoen arteko koordinazioa bermatuz, parte-hartze eraginkorra sustatuz, proiektu eta eztabaiden antolaketa lagunduz, eta hartutako erabaki eta proposamenen jarraipena ziurtatuz.
- i) Lanketa hau burutzeko, Idazkaritzak aholkularitza teknikoaren laguntza jasoko du.


14. artikulua. UDALEKO HEZKUNTZA-KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA

1. Osoko Bilkura, Udaleko Hezkuntza-kontseiluaren organo gorena den aldetik, honako hauek osatuko dute: lehendakariak eta lehendakariordeak, kontseilari izendatu direnek, eta Idazkaritza esleitu zaion udal-teknikariak. Partaidetzarako, elkarritzetarako eta kontsultarako organo gisa konfiguratu da.

2. Osoko Bilkura gutxienez bi aldiz bilduko da ikasturtean zehar. Kontseilarien % 40aren eskariz, ezohiko bilkuretarako deia egiteko eskatu ahal izango zaio lehendakariari, idazki arrazoitu baten bidez eta deialdia eragin duten gaiak zehatz-mehatz justifikatuz.

3. Osoko Bilkuraren ohiko deialdia gutxienez zazpi egun lehenago egingo da, eta bost egun lehenago ezohiko bilkuraren kasuan, presazko arrazoiak daudenean, ordea, nahikoa izango da hogeita lau orduko aurrerapena. Deialdi ororekin batera, gai-zerrenda eta beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dira. Ezohiko bilkuretan, gai-zerrendan zehatz-mehatz adierazitako gaiak baino ezin izango dira planteatu.

4. Osoko Bilkura balio osoz eratuko da lehenengo deialdian, kideen erdiak gutxienez bertaratuta. Edozelan ere, lehendakariak, edo berak izendatutako pertsonak, eta idazkariak egon beharko dute. Bigarren deialdia lehenengoa egin eta ordu erdira egingo da, kideen heren bat gutxienez bertaratzen bada. Quoruma saio osoan mantendu



beharko da.

5. Kontseilarien botoa pertsonala eta eskuordetu ezina da, eta titularrak edo haren ordezkioak eman beharko du, Kontseiluko Idazkaritzan behar bezala egiaztatuta. Osoko Bilkuraren barruko botoa, oro har, publikoa izango da, salbu eta kontseilarien gehiengo soilak bozketa hasi aurretik isilpekoa izatea eskatzen badu.

6. Hezkuntza Kontseiluaren berezko izaera parte hartzailea dela eta, haren barruan elkarrikeria eta eztabaida sustatuko dira, erabakiak adostasunez har daitezkeen lortzeko. Hala ere, adostasunik ez balego, Osoko Bilkurak bertaratutako kideen gehiengo soilaz erabakiko du, salbu eta abstentzio kopurua Osoko Bilkurara bertaratutako kontseilarien gehiengoarena baino handiagoa bada; kasu horretan, erabakia berriro aurkeztu eta bozkatu beharko da, gehiengo soilaren adostasuna lortu arte edo baztertu arte. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

15. artikulua. UDALEKO HEZKUNTZA-KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAREN EGINKIZUNAK


1. Osoko Bilkura da Udaleko Hezkuntza-kontseiluaren erabaki-organo nagusia, eta honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Batzorde Iraunkorra osatuko duten Kontseiluko kideak izendatzea.
- b) Lan-batzordeak sortzea proposatu eta onartzea, baita haiek osatuko dituzten pertsonak ere.
- c) Lehendakariak ordezkariak eskuordetzen duenean, Udaleko Hezkuntza-kontseilua beste organismo batzuetan ordezkatzeko duten kideak hautatzea.
- d) Kontseiluaren barne erregelamendua eta funtzionamendu-arauak onartzea, baita haien aldaketak ere.
- e) Txostenak eta irizpenak eztabaidatu eta onartzea.
- f) Kontseiluaren jardueren memoria onartzea.
- g) Udalerriko hezkuntzaren egoerari buruzko txostenak ezagutzea eta horietan ekarpena egitea.
- h) Ikasturte bakoitzerako jarduketa-programa onartzea, Batzorde Iraunkorraren proposamenez.

2. Osoko Bilkurak gai jakin bat berriaz aztertzeke lantaldeak sortzea erabaki dezake, bereziki, Kontseiluaren berezko eskumenekin zerikusia duten gaiak aztertzeke, bai eta hezkuntza-proiektu komunitarioak diseinatu eta eratzeko ere. Horretarako, gehiengoak hala egitea erabaki behar du, Lehendakariak edo Kontseiluko kideen herenak proposatuta.

16. artikulua. LANTALDEAK

1. Lantaldeek aldi baterako iraupen mugatua izan ahalko dute, ezarri zen zeregina gauzatzen den denborara egokituta; edo, egonkortzeko bokazioa izan ahalko dute,



proiektu edo azterlan bat etengabe garatzeko. Nolanahi ere, osaera eta funtzionamendua sortu diren helburura egokituko dira.

2. Lantaldeetan parte hartuko duen kontseilari kopurua aldakorra izango da, baina gutxienez 2 kide izango ditu Kontseiluko kideen artetik hautatuak: aztergai edo analisigai den arloan interesa dutenak, eginkizun zehatz batean parte hartu nahi dutenak edo hezkuntza-proiektu komunitario batean inplikaturakoak.

3. Lantaldeek gizarte- eta hezkuntza-arloko proposamenak egin ditzakete, Hezkuntza Kontseiluaren Osoko Bilkurari helarazteko, bereziki, hezkuntza-proiektu komunitarioei buruzkoak. Proposamenak egiteko, pertsona eta erakunde kualifikatuen aholkularitza eta lankidetzak eskatu ahal izango dute.

4. Lantaldeen barne-funtzionamendua malgua izango da, eta lehenengo bileran erabakiko dute lantaldeko kideek. Beharren arabera deituko dira bilerak. Nolanahi ere, adostasunik ez balego, Osoko Bilkurarako indarrean dauden boto-arauen eta gehiengoaren arabera arautuko da.

5. Lantaldeak aldian-aldian eman beharko du bere jardueraren berri, Osoko Bilkurak eskatzen dion guztietan. Horrez gain, Batzorde Iraunkorra ere informatu beharko du. Agintaldia amaitzeko, lortutako emaitzak txosten batean aurkeztuko dizkio Udaleko Hezkuntza-kontseiluaren Osoko Bilkurari.

17. artikulua. BATZORDE IRAUNKORRA


1. Beharrezkoa izanez gero, Batzorde Iraunkor bat eratu ahal izango da, Kontseiluak ezarritako lan-ildo guztien jarraipen eta koordinazio orokorra egiteko.

2. Batzorde Iraunkorra honako hauek osatuko dute: Kontseiluaren Lehendakaritza, Lehendakariordetza, herriko ikastetxeetako familien ordezkari bi, komunitate-eragileen bi ordezkari, herriko ikastetxeen zuzendaritzen ordezkari bi, herriko ikastetxeen ikasleen bi ordezkari, eta udal-gobernuko alderdi politikoen ordezkari bana eta oposizioan dagoen alderdi politiko nagusiaren ordezkari bat. Kide guztiak Udaleko Hezkuntza-kontseiluaren Osoko Bilkuran hautatuko dira, botoen gehiengo soilez.

3. Batzorde Iraunkorraren Idazkaritza Udaleko Hezkuntza-kontseiluaren idazkariak beteko du.

4. Batzorde Iraunkorrari honako eginkizun hauek dagozkio:

- a) Osoko Bilkuraren ohiko eta ezohiko bilkuren gai-zerrenda prestatzea.
- b) Osoko Bilkuran eztabaidatzeko gaiak, txostenak, proposamenak eta irizpenak prestatzea.
- c) Osoko Bilkurak eskuordetzen dizkion gaiak eta erabakiak kudeatzea, bai eta bilkuren arteko aldian beharrezko erabakiak hartzea ere, betiere kudeaketa-gaiak badira eta Osoko Bilkuraren ezohiko deialdia beharrezkoa ez bada.



- d) Lantaldeen eginkizunak koordinatzea.
- e) Osoko Bilkurari lantaldeak sortzeko proposamena egitea.
- f) Kontseilura, modu puntualean, hitzarekin baina botorik gabe, gonbidatuko diren pertsonen egokitasuna ebatzea, haien gaitasun teknikoagatik edo organo honi egin diezaioketen ekarpen bereziagatik.
- g) Kontseiluak egindako jardueren, egindako azterlanen eta onartutako proposamenen memoria lantzea, bai eta horiek Udalari eta Hezkuntza Administrazioari izapidetzea ere.
- h) Udalerriko hezkuntzaren egoerari buruzko txostenak prestatzea.
- i) Batzorde Iraunkorrak bere eginkizunetako batzuk lantaldeei eskuordetu ahal izango dizkie.
- j) Batzorde Iraunkorrak Osoko Bilkurari emango dio aztertutako gaien eta hartutako erabakien berri, bai eta Osoko Bilkurak eskuordetutako eginkizunen berri ere.

18. artikulua. HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Kontseilu-kide berriei hasierako prestakuntza eskainiko zaie, udalerriaren ikuspegi orokorra, Kontseiluan duten ordezkartzaren zentzua eta organoaren helburuak eta eginkizunak lantzeko.

19. artikulua. AURREKONTUA

Udaleko Hezkuntza-kontseiluak bere jarduerak eta eginkizunak modu egokian betetzeko beharrezko finantzazioa izango du. Udalak urtero aurreikusi eta jasoko du udal-aurrekontuetan partida ekonomiko bat, Kontseiluaren funtzionamendua eta jarduerak bermatzeko.


20. artikulua. KOMUNIKAZIOA

Udaleko Hezkuntza-kontseiluak hezkuntza komunitatearekin komunikazioa errazteko komunikazio bide propioak izango ditu (posta elektronikoa, sare sozialak ...).

21. artikulua. UDALAREKIKO HARREMANA

1. Durangoko Udalak bere eginkizunak betetzeko behar dituen baliabide materialak eman behar dizkio Udaleko Hezkuntza-kontseiluari, bai eta behar adina giza baliabide ere.

2. Udal-zerbitzu desberdinek lankidetzan jardun behar dute Udaleko Hezkuntza-kontseiluarekin batera, beren eginkizunak behar bezala betetzeko; eta, ahal den neurrian, Kontseiluak berak egiten dizkien informazio-eskaerei erantzungo diete. Era



berean, Udaleko Hezkuntza-kontseiluak, bere eginkizunen esparruan, udal-organoekin lankidetzan jardungo du, hala eskatzen diotenean.

3. Hezkuntza-eskumenak dituen udal-arloari dagokio Udaleko Hezkuntza-kontseiluaren funtzionamendua koordinatu eta bultzatzea.

4. Udaleko Hezkuntza-kontseiluak esleitu zaizkion funtsei emandako erabilerari buruzko informazioa, justifikazioa eta erantzukizun publikoa eta aldizkakoa izan behar ditu, bai eta eraginkortasun, gardentasun eta legezketasun-irizpideen arabera lortutako emaitzei buruzkoa ere.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

Durangoko Udaleko Hezkuntza-kontseilua hezkuntza-arloko eskumenak dituen udal-arloak eratu eta abiaraziko du.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA


Lehenengo Udaleko Hezkuntza-kontseilua eratzeko eta kontseilarien hasierako izendapena egiteko, Alkatetzak udalerriko ikastetxeetara joko du, bai eta ikasleen gurasoen elkarreketara ere, Hezkuntza Kontseiluan kontseilari gisa nortzuk ordezkatzuko dituzten adieraz dezaten, bai eta haien ordezkariak ere. Halaber, hezkuntza-ikuspegia duten eta udalerriarekin lotuta dauden hirugarren sektoreko elkarte, entitate edo erakundeei jakinaraziko die Kontseilua laster jarriko dela abian, ordezkari batekin parte har dezaten. Azkenik, alkatea harremanetan jarri ahal izango da hezkuntzaren aldeko jarduerak egiten dituzten pertsonekin, hezkuntzaren eta haurtzararen arloan edo antzeko beste arlo batzuetan ibilbide egiaztatua badute, Kontseiluan parte-hartzea balora dezaten.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Hezkuntza Kontseiluak udalerrian jada martxan dauden haur eta gazteen parte-hartze egiturak integratzeko ditu, hau da, Haurren Kontseilua eta Gazte Foroa, Kontseiluaren baitako lantalde gisa.

Egitura horien bidez, haurrek eta gazteek euren adinera egokitutako parte-hartze espazio propioak izango dituzte, eta bertan landuko, sistematizatuko eta Hezkuntza Kontseilura helaraziko dira haien proposamenak eta ekarpenak.

Horretarako, Hezkuntza Kontseiluaren eta haur eta gazteen lantaldeen arteko komunikazio eta koordinazio mekanismo malguak ezarriko dira, etengabeko harremana eta haien ekarpenen integrazio eraginkorra bermatzeko.



Ondorioz, Hezkuntza Kontseilua lehen aldiz eratzen denean, haur eta gazteen ordezkaritza jada eratuta dauden Haurren Kontseiluko eta Gazte Foroko kideen artean hautatuko da.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Orain arteko lan eta dinamikei jarraipena emateko, Eskola Kontseilu eta Hezkuntza Forotik abiatutako eta indarrean dauden lantaldeak Hezkuntza Kontseiluko lantalde gisa eratuko dira.

Halaber, Hezkuntza Foroa bera ere lantalde gisa planteatuko da.

Osoko Bilkurak epe bat ezarriko du beharrezko moldaketak egiteko eta arau hau betetzen dela bermatzeko.

INDARGABETZE XEDAPENA

Durangoko Udal Eskola Kontseiluari buruzko 1/2019 araudia, 2019ko urtarrilaren 29an onartutakoa, eta osagarri diren araudi guztiak indargabetuta geratzen dira.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau Durangoko Udalbatzak onartu ondoren eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean ezarritako baldintzak bete ondoren sartuko da indarrean.